

BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

3730

EBAZPENA, 2013ko uztailearen 30ekoa, Garraio Azpiegituraren zuzendariarena, Lasarte-Hendaia Lineako Loiolako Geltoki Berriari buruzko Informazio-azterlana jendaurrean erakusteko dena.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak abiatutako ekimenen artean dago Loiolako Geltoki Berriaren Informazio-azterlana; izan ere, ekimen horiek honako helburu hauek dituzte-eta: Lasarte-Hendaia linearen hobekuntza funtzionala, eta salgaien garraioa sustatzea; hartarako, garraio hori eta bidaiarien trafikoa batera izatea razionalizatuaz, eta Lurraldearen Arloko Planaren –egun izapidetzen ari direnaren– aldaketan formulatutako irizpideak eta helburuak kontuan izanik. Linea horretan definitu zen Loiola-Herrera tartea, hain justu ere bide biko linea horren adar baten bitartez, zeinak batez ere bidaiarien trafikoa hartuko bailuke; eta oraingo traza-dura –bide bakarreko– salgaien trafikorako erabiliko liteke, betiere Pasaiaiko Portuarekin artezoko konexio ezartzea ahalbidetzen duen heinean.

Loiola-Herrera deritzon Eraikuntza Proiektuari jarraipena eman nahi dio Informazio-azterlan honek; izan ere, proiektu hori eraiketa fasean dago eta honako lan hauek hartzen ditu: Loiolako Auzunearen (geltokia kanpo dela) eta Herrerako Geltokiaren arteko lanak, Intxaurrendoko geltoki berria eta Urumean ibaiaren gaineko beste zubi bat.

Jendaurrean erakutsiko den dokumentu honen helburuak honako hauek dira: Loiolako Geltoki Berriarentzako soluzio egokiena hautatu eta definitzea; halaber, Loiola auzuneko Urbia kalean kokaturiko bidezubiarentzako; hartarako, egungo geltokia ordeztuaz, egungo tunelaren (1. tunela) hasiera arteko bide-zatian bide biko geltoki berri bat gauzatuaz, eta ezponda gaineko egungo geltokia ordeztuaz.

Loiola-Herrera tartean gauzatzen ari diren jarduketekiko bateragarriak izan beharko dute planteatutako soluzioek.

Bidezubi berriaren azpian geratuko diren terrenoak urbanizatzea aurreikusten da, zeintzu bide bat eta oinezkoentzako espazio bat izango baitira. Orobat, Loiolatik pasatzean egindako desbideraketek eragiten dieten azalera urbanizatzea.

Garraio Azpiegituren Zuzendaritzako zerbitzu teknikoen alde aurretiko ikuskapena eta aldeko txostena zirelarik, data honetako ebazpenaz teknikoki eta behin-behinean onartu da dokumentua; txosten hartan honako hauek egiaztatu ziren: teknikoki egia zela, trenbideen arloko arauak betetzen dituela eta bai aplikagarria den gainontzeko legeria ere.

Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenpeko trenbideen arloko proiektuak idatzi eta onartzeko eskumenak ditu organo honek, hala xedatuta baitago Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 196/2013 Dekretuaren 14.1 artikuluan.

Trenbide Sektorearen Araudiko 10.5 artikuluan ezartzen denez, informazio-azterlana behin betiko onartu aurretik, 30 egun balioduneko epe baten jendaurrean erakutsi beharko da; hala, trazaduren kontzepzio globalaren gaineko alegazioak formulatu ahal izateko, betiere interes orokorrari eragiten zaion heinean.

Ez da beharrezkoa ingurumen-inpaktuari buruzko azterlan bat idaztea, ez eta hori jendaurrean erakustea ere; izan ere, proiektua ez baita sartzten EAeko Ingurumen Babesteari buruzko otsai-

2013ko abuztuaren 23a, ostirala

laren 27ko 3/1998 Legeko I.b eranskineko zerrendan, zeren 2 kilometrotik beherako luzera baitu. Hala ere, lan horien ondoriozko eraginak ahalik eta hobekien baloratzeko, Informazio-azterlanak ingurumen-inpaktuari buruzko azterlan bat jasotzen du, 10. eranskinean.

Beraz, aipatutako xedapenok eta dagozkion gainerako aplikagarri guztiak kontuan harturik, ondokoa,

EBAZTEN DUT:

«Lasarte-Hendaia lineako Loiolako Geltoki Berriari buruzko Informazio-azterlana» entzunaldia-
ren eta jendaurrean erakusteko izapidetik pasatzea; hala, ebazpen hau azkenekoz argitaratu eta hurrengo egunetik harako hogeita hamar eguneko epearen barruan, trazaduraren kontzepzio globalari dagokionez eta interes orokorrari eragiten zaion heinean, korporazioek, toki-erakundeek, elkarteek eta partikularren egoki deritzeten alegazioak aurkeztu ahal ditzaten.

Epe horren barruan, jendeak eskura izango du Informazio-azterlana leku hauetan: Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren Garraio Azpiegituren Zuzendaritzan, Vitoria-Gasteizko Donostia kalea 1; Donostiako udaletxean; eta Interneteko www.euskadi.net web-orrian, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailari dagokion atalean.

Eta horrela jakinarazten da jendeak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko uztailaren 30a.

Garraio Azpiegituraren zuzendaria,
ALMUDENA RUIZ DE ANGULO DEL CAMPO.